

1. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

Testua.

2005ean inmigrante gehien zuten herrialdeak		
Herrialdea	Bertan bizi diren inmigranteak (milioitan)	Munduko guztien %
AEB	38,4	20,2
Errusia	12,1	6,4
Alemania	10,1	5,3
Ukrania	6,8	3,6
Frantzia	6,5	3,4
Saudi Arabia	6,4	3,3
Kanada	6,1	3,2
India	5,7	3,0
Erresuma Batua	5,4	2,8
Espainia	4,8	2,5

Inmigrazioa Espainian

Espainia, inmigranteak hartzen dituzten herrialdeen artean, munduko hamargarren lekuan dago. Gure herrialdean, migrazio fenomeno nabarmen handitu da 10 urteko epe txikian. 1996ko urtarrilean, Espainian 600.000 inmigrante baino ez ziren bizi era arautuan, eta, gaur egun, kopuru hori 3.000.000 pertsonakoa da (...).

Garrantzitsua da azpimarratzea inmigrazioa lehen bezala orain ere oso onuragarria izan dela Espainiarentzat. Demografikoki, biztanleriaren urteko %1,5eko hazkundeak %1,2 zor die inmigranteei. Azken hamarkadan, BPGren hazkunderen %30 ere inmigranteen lanean dago oinarrituta. Eta langile inmigranteek Gizarte Segurantzari guztira egindako ekarpena 8.000 milioi eurokoa izan da 2006an. Ondorioa oso argia da: Espainiak bere ongizatea neurri handian inmigrazioari zor dio (...).

Ondorio onuragarri horiek alde kaltegarria ere izan lezakete, baldin eta ez bagara gauza inmigrante berrien sarrera kontrolatzeko eta arrazionalizatzeko, eta hemen bizi direnen integrazioa hobetzeko. Espainiaren harrera ahalmena, munduko beste herrialde guztiena bezala, ez baita mugagabea (...).

Eta hori ahaztu gabe Espainiak, bere kokapen geografikoagatik eta Latinoamerikarekin dituen loturengatik, hurrengo urteetan ere hainbat migrazio presio jasango dituen herrialdea izaten jarraituko duela.

Baieztapen horren adierazgarri, aski da esatea Espainia eta Marokoren arteko errenta aldea 1-10ekoa dela, eta Espainia eta Senegalen artekoa 1-16koa (...).

El Pais urtekaria. 2007

Reproducido con el permiso de Editorial Vicens Vives, S. A.

GAIA	Gizarte Zientziak. Geografia
MAILA	DBH 3
IKASTETXEA	Pedro de Ursua BHI
DEPARTAMENTUA	Geografia eta Historia
IRAKASLEA	Asun Asenjo
JATORRIA	
EGILEA	Pilar Benejam i Arquimbau
IZENBURUA	Lurra, gizarte zientziak, geografia, 3 DBH, 3 maila
ARGITALETXEA	Editorial Vicens Vives, S.A.
URTEA	2007
ORRIALDEA(K)/	256 eta 266
ISBN	978-84-316-8472-3
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Testu inprimatua
FORMATOA	Mistoa: taula eta testu idatzia
MOTA	Taula eta argudiozko testua
ERABILERA	Hezkuntza egoera
ESTRATEGIAK	
IRAKURRI BAINO LEHEN	<p>1. Irakurketaren helburua: Inmigrazioari buruzko hausnarketa egitea: Inmigrazioak Espainiarako dituen ondorio onuragarriak ulertu eta baloratzea, inmigrazioaren aldeko jarrera positiboa sustatuz.</p> <p>2. Irakurketaren zailtasunak konpontzeko estrategiak aplikatzea, hau da, zalantzak eta ulermenaren hutsuneak argitzea, alde aurreko ezagupenak aktibatuz: emandako zenbait kontzeptu gogoratuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • BPG (Barne Produktu Gordina) • Aipaturiko herrialdeen egoera sozio-ekonomikoa • Migrazio-presioa • Espainiako kokapen geografikoa eta Latinoamerikarekin dituen loturak • “Ongizatea” kontzeptua <p>3. Aurreko ezagupenak kontutan hartuz hipotesiak egitea: <i>El País</i> egunkariaren artikulua izanik, azpiko ideologiaren identifikazioa (azterketa kritikoa: ideologikoki aurrerakoia den egunkari honen artikulua inmigrazioa begi onez ikusiko duelakoan).</p>
IRAKURRI BITARTEAN	<p>4. Lehendabizi, taulako datuak aztertzea, munduan inmigrante gehien hartzen duten herriak identifikatuz (herri garatuak). Gero paragrafo bakoitza irakurtzean, bere edukia laburtzea esaldi batekin; adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.an, Espainiako inmigrazioa asko handitu da. • 2.ean, Inmigrazioa onuragarria da Espainiako

		<p>ekonomiarentzat.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3.ean, Inmigrazioa eta integrazioa era arrazionalan egin behar dira. • 4.ean, Migrazio presioak jarraituko du Espainian. • 5.ean, Espainiako errenta Afrikako herrietakoa baino askoz altuagoa da.
IRAKURRI ONDOREN		5. Edukiaren aldetik, testuak dituen bi zati argiak identifikatzea: lehenengoan, taula eta lehen bi parrafoetako inmigrazioari buruzko datu objektiboak (onuragarriak direnak), eta bigarrenean, Espainian migrazio presioak jarraitzeko argudioak eta hori kaltegarria ez izateko jokabideak (azkeneko hiru parrafoetan)
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
INFORMAZIOA BILATZEA EDO ESKURATZEA	1.	Hitzez hitzeko informazioa biltzea. Munduko zein postu eta zein portzentaia du Espainiak inmigrante gehien duten herrialdeen artean?
	Erantzuna	<i>10. postua %2'5</i>
	2.	Informazio baliokidea bilatzea (sinonimoen bidez). Zein hiru arrazoi aipatzen dira inmigrazioak Espainiako biztanleen maila igo duela baieztatzeko?
	Erantzuna	<i>1. Biztanleria handitu da (%1,2) 2. Inmigrazioaren lanak BPGren %30 osatzen du 3. Inmigranteen ekarpena Gizarte Segurantzari 8.000 milioi eurokoa da</i>
ULERMEN OROKORRA	1.	Idea nagusia edo gaia zehaztea. Zein da, zure ustez, testuaren zentzua hobekien biltzen duen esaldia? <ul style="list-style-type: none"> a) Inmigrazioa onuragarria izan da Espainiarentzat eta erabat kontrolatua dago. b) Inmigrazioa kaltegarria izan da Espainiarentzat, biztanleria %1,2 igo delako. c) Inmigrazioa onuragarria izan da Espainiarentzat, baina inmigrante berrien sarrera kontrolatu behar da eta daudenen integrazioa hobetu behar da. d) Migrazio fenomenoak nabarmen handitu da Espainian azken 10 urteetan.
	Erantzuna	<i>C aukera</i>

	2.	<p>Testuaren arabera, esaldi hauek ordenatu:</p> <ol style="list-style-type: none"> Inmigranteen lanak onura ematen dio Espainiako ekonomiari. Etorkizunean inmigrazioak onuragarria izaten jarraitzeko, sarrerak kontrolatu eta integrazioa hobetu behar dira. Espainian migrazio fenomenoaren erritmo bizian handitu da azken hamarkadan. Espainiak hurrengo urteetan migrazio presioa jasango ditu. Espainiako bizimaila Afrikako herrietakoa baino askoz hobea da. Inmigranteek Espainiako biztanleria handitu dute.
	Erantzuna	<i>c, f, a, b, d, e</i>
INTERPRETAZIOA	1.	<p>Informazioa erkatu eta egiaztatzea.</p> <p>Testuko zein esalditan egiaztatzen da taulako informazioa?</p>
	Erantzuna	<i>“Espainia, inmigranteak hartzen dituzten herrialdeen artean, munduko hamargarren lekuan dago”</i>
	2.	<p>Laguntza probak identifikatzea.</p> <p>Zergatik esaten du egileak “Espainiak bere ongizatea neurri handian inmigrazioari zor diola”?</p>
	Erantzuna	<i>Azken urteotan inmigranteei esker biztanleria handitu delako eta langile inmigranteek aberastasuna sortzen dutelako Estatuko ekonomian (BPG, Gizarte Segurantzaren...)</i>
FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA	1.	<p>Uste al duzu egileak erabiltzen dituen zenbait hitz (onuragarria, ongizatea, sarrera...arrazionalizatu, integrazioa... hobetu) lagungarriak direla bere inmigrazioarekiko jarrera positiboa azaltzeko?</p>
	Erantzuna	<i>Bai</i>
	2.	<p>Argudiozko testua izanik, hurrengo kazetaritza-generoen artean, zeinetan sailkatuko zenuke eta zergatik?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Editoriala • Berria • Erreportajea • Zuzendariari eskutitza
	Erantzuna	<i>Editoriala, egunkariaren ideologia adierazten baitu, eta egunkariaren izenean sinatua baitago eta ez egile konkretu baten izenean.</i>
EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA	1.	<p>Testuan ez dauden argudioak ekartzea.</p> <p>Taula begiratuta, inmigranteak ekonomikoki garatuak edo garapen bidean dauden herrialdeetara doazela ikusten dugu. Zergatik?</p>
	Erantzuna	<i>Herrialde horietan lan aukera gehiago daudelako eta gainera inmigranteek herrialde horietan gutxietsitako eta gaizki ordaindutako lanpostuak betetzen dituztelako (soroetako lanak, garbiketara, etab.)</i>

	2.	<p>Testuan ez dauden argudioak ekartzea.</p> <p>Testuan inmigranteen lanak Espainiako ekonomia-hazkundeari laguntzen diola baieztatzen da. Aipatu Espainiari inmigrazioak ekartzen ahal dizkion beste onura batzuk.</p>
	Erantzuna	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Biztanleria gazteak gora egiten du, eta horrenbestez, jaiotze-tasak ere bai. Hori oso onuragarria da Espainia bezalako herri zahartuarentzat.</i> • <i>Biztanle gehiagok ordaintzen dituzte zergak, eta zergak beharrezkoak dira erretiroak eta gizarte-zerbitzuak finantzatzeko.</i> • <i>Espainiako kultura aberastu egiten da.</i>

PRAKTIKAN JARRI – OHARRAK

Migrazioen gaia otsailaren amaiera inguru emanen dugu. Ez bazaizu importa, nahiago dut testua praktikan jartzea gaia eman ondoren (probetxu gehiago ateratzeko). Horrela ba, martxoaren hasieran bidaliko dizkizut emaitzak
Eskerrik asko.